



**Etiketak dira elikadura-enpresetako operadoreek kontsumitzaileei produktuei buruzko informazioa emateko bide nagusia.** Elikagaien etiketetan agertzen den informazioari esker, pertsona bakoitzak beretzako aukerarik egokiena egin dezake.

Elikagaien etiketak kontsumitzaileari helarazitako elikadura informazioari buruzko 1169/2011 Araudiak (EB) erregulatzen ditu. Elikagaiekin lotutako sektore guztiei eragiten die eta **betebehar guztiekin nahitaez bete behar da** (araudian bertan aipatutako salbuespenekin).

1169/2011 Araudia (EB), kontsumitzaileari helarazitako elikadura informazioari buruzkoa - TESTU BATERATUA 2014.02.14an (<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:02011R1169-20140219&rid=1>)  
Liburuxka: 1169/2011 Araudia (EB), kontsumitzaileari helarazitako elikadura informazioari buruzkoa - ELIKA (2012) (<http://etiketatzea-dev.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/elikagaiak-etiketatzeara.pdf>)  
1169/2011 Araudiaren (EB) alderdi garrantzitsuenei buruzko agiria - ELIKA (2012) ([http://etiketatzea-dev.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/eti-q-información-facilitada-al-consumidor\\_eusk.pdf](http://etiketatzea-dev.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/eti-q-información-facilitada-al-consumidor_eusk.pdf))

Galdera-erantzunen agiria - I. zatia

([https://ec.europa.eu/food/sites/food/files/safety/docs/labelling\\_legislation\\_qanda\\_application\\_reg1169-2011\\_es.pdf](https://ec.europa.eu/food/sites/food/files/safety/docs/labelling_legislation_qanda_application_reg1169-2011_es.pdf))

Galdera-erantzunen agiria - II. zatia (ingelesez)

([http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/seguridad\\_alimentaria/gestion\\_riesgos/Preguntas\\_Respuest](http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/seguridad_alimentaria/gestion_riesgos/Preguntas_Respuest))

Kontsumitzaileari helarazitako elikadura informazioari buruzko gida - FIAB (2014)

([http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu\\_20140320162214.pdf](http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu_20140320162214.pdf))

Araudian agertzen diren berritasunen artean hauek daude:

### **Alergiak edo intolerantziak eragin ditzaketen substantzien adierazpena**

Berritasun nagusietako bat da **alergiak edo intolerantziak sor ditzakeen edozein substantzia adierazi behar dela, bai ontziraturako elikagaietan bai ontziratutako gabekoetan.**

**Osagaien zerrendan adieraziko dira**, gainerako osagaietatik **bereizteko tipografiarekin**. Elikagaiak osagaien zerrendarik ez badu, substantzia alergenikoaren izena eta "dauka" aipatuko da.

Elikagaiaren izenak alergiak edo intolerantziak sortzen dituen substantzia edo produktua argi eta garbi aipatzen duenean, ez da beharrezkoa substantzia edo produktu hori etiketatzea.

Aitortu beharreko alergenoen zerrenda ([http://etiketatzea-dev.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/5.1.listado-de-alérgenos-a-declarar\\_eusk.pdf](http://etiketatzea-dev.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/5.1.listado-de-alérgenos-a-declarar_eusk.pdf))

Batzordearen 2017.07.13ko jakinarazpena, alergiak edo intolerantziak eragiten dituzten substantziei edo produktuei buruz emandako elikadura informazioari buruzkoa, Kontsumitzaileari helarazitako elikadura informazioari buruzko 1169/2011 Araudiaren (EB) II. eranskinean agertzen denaren arabera ([https://ec.europa.eu/food/sites/food/files/safety/docs/labelling\\_guidance\\_allegens-2017-4864\\_es.pdf](https://ec.europa.eu/food/sites/food/files/safety/docs/labelling_guidance_allegens-2017-4864_es.pdf))

**Alergenoei buruzko informazioa borondatez ematen bada**, ez du nahasterik eragingo eta ez da anbigua edo nahasgarria izango kontsumitzaileentzat, eta dagozkion datu zientifikoetan oinarrituko da.

Gai horrekin lotuta, Europako Batzordeak exekuzio ekintzak erabaki beharko ditu elikagaiei buruzko borondatezko informazioari betebeharrak aplikatzeari dagokionez:

a) Elikagai batean nahi gabe alergia edo intolerantziak eragiten dituzten produktuak egoteko aukerari buruzko informazioa.

Alergenoen badaezpadako etiketatzea (EPA) - FIAB (2016)

([http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu\\_20161020154930.pdf](http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu_20161020154930.pdf))

b) Elikagai jakin bat begetarianoentzat edo beganoentzat egokia den adierazten duen informazioa.

c) Herritar-talde jakin bat edo batzuentzat erreferentziako ingestak adierazteko aukera.

d) Elikagaietan glutenaren presentziari edo gabeziari buruzko informazioa.

Batzordearen 828/2014 Exekuzio Araudia (EB), kontsumitzaileei elikagaietan glutenaren gabeziari edo presentzia murriztuari buruzko informazioa helarazteko betebeharrari buruzkoa (<http://www.boe.es/doue/2014/228/L00005-00008.pdf>)

### **Nutrizioari buruzko informazioa**

Elikagaiari buruzko **nutrizio informazioa ematea nahitaezkoa da 2016ko abenduaren 13tik aurrera** ia-ia elikagai guztietarako.

Adierazpena "100 g-ko edo 100 ml-ko" egin beharko da nahitaez, eta balio energetikoa eta hauen zenbatekoak adierazi beharko dira:

	100 g /100 ml-eko
<b>Balio energetikoa</b>	<b>kJ/kcal</b>
<b>Koipeak</b>	<b>g</b>
<b>horien artean koipe saturatuak</b>	<b>g</b>
<b>Karbohidratoak</b>	<b>g</b>
<b>horien artean azukreak</b>	<b>g</b>
<b>Proteinak</b>	<b>g</b>
<b>Gatza</b>	<b>g</b>

([https://etiketatzea.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2018/04/nutrizio-informazioa\\_derrigorrezkoa.jpg](https://etiketatzea.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2018/04/nutrizio-informazioa_derrigorrezkoa.jpg))

Gainera, hauek ere adierazi ahal izango dira: gantz-azido monoinsaturatuak, gantz-azido poliinsaturatuak, polialkoholak, almidoia, elikagai-zuntza, eta zenbateko nabarmenetan dagoen edozein bitamina edo mineral.

Nahitaezko nutrizio-informazioa eman behar ez duten elikagaiak (<https://etiquetado.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2017/12/listado-de-alimentos-exentos-de-la-informaci%C3%B3n-nutricional.pdf>)

Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari zuzendutako 2017.03.13ko txostena, osagaien zerrendaren derrigorrezko etiketatzeari eta edari alkoholduen nutrizio-informazioa adierazteari buruzkoa (<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52017DC0058&from=ES>)

Etiketan adierazitako nutrizio-balioetarako tolerantziak ezartzeari dagokionez legediaren betetze-maila kontrolatzeko esparruan eskudunak diren agintarientzako orientazio-dokumentua

([http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/seguridad\\_alimentaria/gestion\\_riesgos/labelling\\_nutrition\\_t](http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/seguridad_alimentaria/gestion_riesgos/labelling_nutrition_t)

Elikagaien nutrizio informaziorako gida - Madrilgo Erkidea (2017) (<http://www.madrid.org/bvirtual/BVCM020008.pdf>)

Trans motako gantz-azidoei dagokienez, Batzordeak txosten bat egin behar zuen horri buruz, eta aplikatzeko legegintza-neurriak gehitu zitekeen.

Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari zuzendutako 2015.12.13ko txostena, oro har, Europar Batasuneko herritarren elikagai eta dietan dauden trans motako gantzen ingurukoa

(<https://ec.europa.eu/transparency/regdoc/rep/1/2015/ES/1-2015-619-ES-F1-1.PDF>)

Elikagaietan dauden trans motako gantz-azidoak: operadoreentzako jarraibideak – FIAB

([http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu\\_20170706020000.pdf](http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu_20170706020000.pdf))

### **Urrutiko salmenta**

Argi dago urrutiko salmentaren bidez hornitutako **edozein elikagaik saltokietan saltzen diren elikagaiek bete beharreko informazio-betekizun berberak bete behar dituela**. Hala ere, argitu behar da, kasu horietan, dagokion derrigorrezko **informazioa ere erabilgarri egon behar dela erosketa egin aurretik**, gutxieneko iraupen-epea izan ezik.

Urrutiko salmentarekin lotutako auziak, kontsumitzaileari ematen zaion elikagaien informazioari buruzko 1169/2011 Araudiaren (EB) esparruan – AECOSAN (2015)

([http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/seguridad\\_alimentaria/gestion\\_riesgos/cuestiones\\_relativas](http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/seguridad_alimentaria/gestion_riesgos/cuestiones_relativas))

Kontsumitzaileari urrutiko salmentaren bidez hornitzen diren elikagaiei buruz informatzeko betekizunak – FIAB (2014)

([http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu\\_20141107143025.pdf](http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu_20141107143025.pdf))

Era berean, ontziratu gabeko elikagaiak badira, informazio orokorra erosketa egin aurretik jasota egon behar da, data eta jatorrizko herrialdea izan ezik. Entregatzeko unean, berriz, informazio guztia eman behar da elikagaiekin batera.

### **Irakurgarritasuna**

Kontsumitzaileak elikagaiari buruzko informazioa errazago ikus dezan, **informaziorako iturriak, gutxienez, 1,2 mm-ko tamaina izan behar duela ezarri da**. Ontziaren gehieneko azalera 80 cm<sup>2</sup> baino txikiagoa bada, gutxieneko tamaina hori 0,9 mm-ra murriztuko da.

Azalerarik handiena 10 cm<sup>2</sup> baino txikiagoa duten ontzietan ez da beharrezkoa nutrizio-informazioa eta osagaien zerrenda gehitzea.

Kontsumitzaileari ematen zaion elikagaien informazioaren irakurgarritasunari buruzko gidalerroak – FIAB (2014)

([http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu\\_20141117010000.pdf](http://www.fiab.es/archivos/documentoMenu/documentomenu_20141117010000.pdf))

### **Jatorrizko herrialdea**

**Txerri, ardi, ahuntz eta etxeko hegaztien haragi freskoak** etiketan bere jatorrizko herrialdea adierazi behar duten produktuei (behi-haragia, eztia, frutak eta barazkiak eta oliba-olioa) gehitzen zaizkie.

Batzordeak argitaratu zuen argitaratu beharreko txostena:

Europako Parlamentuari eta Kontseiluari zuzendutako Batzordearen txostena, esnearen, esnekietan osagai gisa erabilitako esnearen eta behi-haragia ez diren gainerako haragiaren jatorria edo jatorrizko herrialdea derrigorrean adierazteari buruz ([https://ec.europa.eu/agriculture/milk/origin-labelling/com-2015-205\\_es.pdf](https://ec.europa.eu/agriculture/milk/origin-labelling/com-2015-205_es.pdf))

Kontsumitzaileari ematen zaion elikadura-informazioari buruzko 1169/2011 (EB) Erregelamenduak estatu kideak gaitzen ditu estatu-mailako neurriak sartzeko jatorrizko herrialde edo lekua adierazi behar izateari buruz.

Kontsumitzaileei eginiko inkestak emaitzen bitartez, egokitzat jo da arlo hori arautzea, era esperimentalean, bi urtez, inguruko beste estatu kide batzuetan ezarritako antzeko araudiekin bat etorriz. Horren guztiaren helburua da informazio osoagoa ematea lehengai gisa erabilitako esnearen jatorriari buruz, kontsumitzaileak errazago baliatu dezan erosketa aukeratzeko eskubidea.

Berriki argitaratu da 1181/2018 Errege Dekretua, esnearen eta esnekien etiketetan osagai gisa erabilitako esnearen jatorria adierazteari buruzkoa (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/09/22/pdfs/BOE-A-2018-12837.pdf>). Arau horren helburua da arautzea Espainian egin eta bertan merkaturatzen diren esnearen eta esnekien etiketetan osagai gisa erabilitako esnearen jatorria nahitaez adierazteko beharra.



Liburuxka Elikagaien industria: osagai gisa erabilitako esnearen jatorria adieraztea - ELKA (2019)  
 (https://etiquetado.elika.eus/wp-content/uploads/sites/3/2019/04/industria\_PRODUCTOS-ELABORADOS\_origen-leche-EU.pdf)

### **Beste nobedade batzuk**

Olio edo landare-koipeetan jatorria zehaztu beharko da.

Nanomaterial artifizialak modu argian adierazi beharko dira osagaien zerrendan; horien ondoren "nano" hitza jarri beharko da parentesi artean.

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
 berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)